

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

36. astea (2025eko irailaren 1etik 7ra)

Gripe-birusaren eta ABSren zirkulazioa epidemia arteko balioetan mantentzen da, gripe detekzioetan igoera txiki bat antzeman delarik. COVID-19 kasuen kopuruak goranzko joera motela mantentzen du Lehen Mailako Arretan.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 156,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (123,5 /100.000 32. astean).
- LMA, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasak epidemia arteko balioetan mantentzen dira. COVID-19aren tasak goranzko joerari eutsi dio Lehen Mailako Arretan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 14 lagin jagoleen % 50,0 baieztatu da. 5 SARS-CoV-2 detektatu dira, baina ez gripearen birusik ala ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 7,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (6,9/100.000 32. astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 198 SARS-CoV-2, 45 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 156,6 kasukoa izan da (123,5/100.000 32. astean). Lurralde historikoka, tasa 116,0/100.000 izan da Araban, 180,2/100.000 Bizkaian eta 137,9/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 100.000 biztanleko 990,1 kasurekin, ondoren 1-4 urte bitarteko taldea kokatzen delarik 339,4 kasurekin.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 62,6 kasukoa izan da (51,4/100.000 32. astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberaiko intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI gehienetan 32. astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 36. astea	Tasa 32. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	124,8	81,6	1,53 (1,30-1,80)
Arabar Errioxako ESI	238,1	238,1	1,00 (1,00-1,00)
Barakaldo-Sestaoko ESI	142,7	107,0	1,33 (1,07-1,67)
Barrualde-Galdakaoko ESI	172,8	123,2	1,40 (1,23-1,60)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	216,8	129,1	1,68 (1,50-1,89)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	173,4	122,4	1,42 (1,18-1,70)
Uribeko ESI	146,5	96,8	1,51 (1,27-1,80)
Bidasoako ESI	136,0	132,1	1,03 (0,78-1,35)
Debararrenako ESI	171,9	142,5	1,21 (0,93-1,57)
Debagoienako ESI	104,4	85,7	1,22 (0,85-1,74)
Donostialdeako ESI	126,8	155,3	0,82 (0,72-0,92)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	151,8	163,3	0,93 (0,74-1,16)
Tolosaldeako ESI	140,8	153,2	0,92 (0,69-1,22)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,8 kasukoa da 100.000 biztanleko (1,5/100.000 32. astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 21,4 kasutan kokatu da (39,2/100.000 32. astean). COVID-19arenak gora egin du eta 100.000 biztanleko 14,7koa izan da (12,3/100.000 32. astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 14 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 50,0 baieztatu dira. 5 SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez gripearen birusik ezta ABSik ere.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren eta ABSren positibotasuna % 0,0an mantentzen da. SARS-CoV-2arena altu mantentzen da eta aste honetan % 35,7an kokatu da (% 25,0 32. astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE


	36. astea		32. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	528	26,0
SARS-CoV-2	5	35,7	3	25,0	93	4,6
ABS	0	0,0	0	0,0	70	3,4
Metaneumobirus	1	7,1	0	0,0	80	3,9
Parainfluenza	0	0,0	1	8,3	94	4,6
Adenobirus	1	7,1	1	8,3	94	4,6
Errinobirus	1	7,1	1	8,3	346	17,0
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	100	4,9
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	49	2,4

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritik direnak. AIAL tasa 7,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (6,9/100.000 32. astean), 9,0/100.000 gizonetan eta 6,6/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena 64 urtetik gorakoen taldean erregistratu da, 20,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren urtebetetik beherakoen taldea kokatu delarik 14,8 kasurekin 100.000 biztanleko.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,3koa izan da 100.000 biztanleko (0,1/100.000 32. astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 32. astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 1,1 kasukoa 100.000 biztanleko (1,3/100.000 32. astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du eta % 7,1an kokatu da (% 1,9 32. astean), eta ABSrena % 0,0an mantentzen da. SARS-CoV-2aren positibotasunak % 19,0an kokatu da (% 23,4 32. astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	36. astea		32. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	142	19,0	128	23,4	10608	5,4
Influenza	99	7,1	104	1,9	9214	19,4
ABS	90	0,0	95	0,0	8619	8,8

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 198 SARS-CoV-2, 45 gripe-birus eta ABS bat detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 45 gripe-birusetatik, 25 A motakoak izan dira, 6 A(H3) eta 14 A(H1)pdm09. 2024/40 astetik 9476 detekzio erregistratu dira, 7466 (% 78,8) A motakoak eta 2010 (% 21,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3785 birusetatik, 2488 (% 65,7) A(H3) eta 1297 (% 34,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko irailak 10

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza